

**Zientzia
eta teknologia**
Euskadi Irratiaren
sintonian
Guillermo Roaren
eskutik

**Materia iluna izan liteke
Lurrera iristen diren
pulsarren jatorria**

Lurrera iristen diren gehiegizko positroien jatorria ez dago pulsarretan, eta, beraz, litekeena da jatorri exotikoagoa izatea, materia iluna, adibidez. Ondorio horretara iritsi dira Mexikoko HAWC gama-izpien behatokian egindako behaketa batzuekin. [Science aldizkarian eman dute horren berri.](#)



HAWC behatokia (High-Altitude Water Cherenkov) 4.100 metroko altueran dago, Sierra Negra sumendiaren ondoan, Pueblan (Mexiko). Urez betetako 300 tangen bidez gama-izpi izena ematen zaion energia handiko erradiazioa detektatzen du. ARG.: Jordan A. Goodman.

Azken urteetan, izpi kosmikoen hainbat detektagailutan neurtu da espero baino positroi gehiago iristen direla Lurrera. Eta hainbat ikerketek iradoki dute pulsar deitzen zaien izarretan egon litekeela positroi horien jatorria (elektroien antipartikulak dira positroiak). Ustez horretarako behar bezain gertu zeuden bi pulsar aztertu dituzte orain HAWC behatokian, eta kalkulatu dute pulsar horietan sortutako positroiak zenbateraino heda daitezkeen espazioan. Bada, kalkulu horien arabera, ezinezkoa da pulsar horiek Lurrera iritea. Hala, ikertzaileek argi dute Lurrera iristen diren gehiegizko pulsar horiek beste jatorriren bat izan behar dutela, eta litekeena da materia iluna izatea. ●



OSTIRALETAN: 22:00etan
LARUNBATETAN: 15:00etan
Interneten: <http://norteko.elhuyar.eus/>